

BIZKAIERA

Gotzon Gárate

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p. 43-49
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Egungo egunean Bizkaian euskara gora doa baina euskaldun berriei esker. Baserrietako euskaldun askotxok erdarara jotzen dute eta ez dute semealabekin euskaraz berbetan egiten.

Alde batetik espainolez hitz egitea handitzat jotzen dute. Bilbotar erdaldunek maiz ixeka egin izan die herrietatik Bilbora zetozen euskaldunei, espainolez gaizki egiten zutelako. Artez ez bazen, hitzerdika, euskara boronoen eta arloteen hizkuntza dela burutan sartu nahi izan die.

Bestetik bizkaitarrei bizkaiera zabarra, zatarra, itsusia iruditzen zaie. Azpaldidanik Bizkaian bizi naiz eta ongi ohartu naiz beren hizketari buruz duten zorigaiztoko uste txar hortaz. Gipuzkek, adibidez, beaiek baino hobeto egiten dutela uste dute.

Konplexook kentzen guziok saiatu beharko ginateke, egia esanez.

Lehenik hauxe jakin beharko lukete: atzerrira joaten badira, euskaraz hitz eginez baino askoz desprezio gehiago izango dutela espainolez mintzatzen badira. Espainola gero eta gehiago mintzatzen bada ere, pobreen hizkuntza da eta mundu honetan pobreak ez dira oso estimatuak.

Gazte gaztetatik nabil munduan barna, hasi Sueziatik eta Italiaraino, Afrikan, Indian eta Ameriketara barna. Despreziorik handienak espainolez mintzatzen nintzelako egin dizkirate.

Euskaraz eginez gero, atzerrian harritze eta errespetuz begiratuko dizue.

Hau da, ez da inolaz ere ikusten zein arrazoi duten espainolek euskaraz mintzo direnei ixeka egiteko.

Bigarrenik. Azken hogeitau hiru urte honetan Euskal Herriko zazpi probintzietako baserrietan nabil, euskara aztertzen, esaldiak eta atsotitzak biltzen.

Eritzi honetara heldu naiz: euskaraz egunero mintzo direnak toki guzietan oso ongi egiten dute. Baina euskararik hoberena non egiten den esatera behartuz gero, Gipuzkoan Bizkaian baino hobeto egiten dela esaten ez nintzateke ausartuko ni. Eta ez dut uste hori inola ere frogatu daitekeenik.

Nondik dator, bada, euskaraz gaizki egiten dutela bizkaitarren uste hori? Bi alderditatik. Fonetikatik eta lexitokik.

Egia da bizkaiera belarrientzat Goierriko edo Nafarroa Behereko euskara baino latzago dela. Berastegiko edo Landibarreko baserrietan entzuten dudana euskara goxoago da, eztiago.

Eta Bizkaiko zenbait eskualde edo herritan erdal hitz nahiko sartzen dituzte.

Ez batak eta ez bestak ez dute, ordea, euskararen indarra eta aberastasuna egiten. Osasuna ez datza pertsonaren azal mehe edo lodian. Ez eta euskalkien bikaintasuna belarrientzako goxo edo latza izatean.

Oraindikan ere gure artean puritanismoa, eta garbizalekeria ez dira erabat galdu. Ceteris paribus, ahal delarik, gauzak euskal hitzez ezatea ongi dago.

Baina eguneroko hizketan erdal hitzak sartzen dituztenek euskaraz gaizki egiten dutela esaten duenak ez du hizkuntzei buruzko jakinduria handirik.

Austrian, Alemanian eta Suizan urte askitto eman ditugunok, badakigu alemanez mintzatzean, zenbat eta frantses hitz gehiago erabili, gure alemana hobea jotzen zutela.

Behin eta berriz esan behar da. Eibarren eta Bermeon euskaraz gaizki egiten dela uste dutenek hizkuntzalaritzan suspenso merezi dute.

Bizkaiera beste euskalkien aldean aldrebesa dela esatea iñozokeria da eta bide batez ia euskaldunen erdiak euskal gaiztotzat madarikatzea.

Egia, ordea, beste aldera dago. Bizkaierak ongi gorde ditu —beharbada Euskal Herriko azken muga dagoelako eta euskalkirik mintzatuena eta zabalduena delako— beste euskalkietan galdu ditugun zenbait molde jakingarri.

Horietako molde batzuk, intentsiboak eta erakusleak, adibidez, lehenagoko testu zaharretan ere aurkitzen ditugu. Hots, lehenago Bizkaian ez ezik, beste eskualdetan ere erabiltzen ziren. Gero galduz joan dira, ordea.

Nik lantxo honetan oso laburki, bizkaieraren zenbait alderdi aipagarri azalduko dut. Agian, beste norbaitek, nik hemen iragaitzez esandakoa luzarago aztertuko du.

Bizkaiera ezagutuago, estimatuago ízango duzu.

1.- HITZAK

1.1.- Lexikoa.

1.1.1.- Beste euskalkiek bereizten ez dituzten hitzak. Zenbait adibide:

- Mariren neba (neskatxa baten neba) / Mireren aizta
- Lurpean dago gorpua / Mirenek gorputz ederra deuko
- Okela sano ona dago / Mireni aragia ikusten jako

1.1.2.- Hitz zaharrak, beste euskalkietan erdal mailegu berriago direnak. Adibide batzuk:

- Berenberegi (espres, berariaz) joan nintzen zapatak erosten
- Doan (debalde) emon neutson
- Tolostuko dugu (konponduko)
- Persona atondue (ongi preparatua)
- Ez egin ja(ra)monik (kasurik)

1.1.3.- Bizkaierak, beste euskalkiek bezala, baditu eunka eta eunka bere-berezko hitzak: aldra, alosa, arakatu, asaskatu...

1.1.4.- Hitz erabilera egokiak

- Zazpi urte barik aita il jatan (baino lehen)
- Ordu bi barik etorriko da (baino lehen)
- Atxine barik pasau zen ezbear ori (aspaldi ez dela)
- *Melokotoia* barik *milokotoia* esaten dau (esan beharrean)
- Artu liburua eta illebetgarrean ikesi noan

1.2.- Morfologia

1.2.1.- Bizkaierak, gipuzkeraren aldean askoz hobeki zaintzen du -a organikoa: gauza, arnasa, eleiza

1.2.2. Mugatugabea ere ongi egiten du:

- Ezti ekartzen joan da
- Egur egiten dabil
- Jakitun ifini euren
- Abarotan dagoz ardia
- Basotan euki du etzalde orrek!
- Orrek gastatzen du gasolinatan!
- Olgetan dabil

1.2.3.- Gipuzkerark baino sarriago erabiltzen ditu bizkaierak ttipigarriak: apurtxo, umetxu, txikitxu, gutxitxo

1.3.- Hitzzen joskera ederra

— Dozena bat sardina, pare bat sardina jan ditzut, pare bat galtzerdi jantzi ditzut (Gipuzkoan erabiltzen diren: sardina *pare bat jan* eta galtzerdi pare bat jantzi ez dira euskararen senarekin ongi josten. Sintagma zuzenak *sardina jan, galtzerki jantzi* dira, lau kilo *tomate jan*, bost botela *ur edan* bezala)

2.- BEREKETA

Bizkaierak, lehengo idazle zeharrek bezala, berexketa txit egokiak egiten ditu. Beste euskalkietan galduz joan dira

2.1.- Erreflexiboak

- *Nire* txakurra sano polita da / *Nik neure* txakurra mait dot
- *Zure* txakurra polita da / *Zuk zeure* txakurra mait dozu
- *Gure* txakurra polita da / *Guk geure* txakurra maite dogu
- *Zuen* txakurra polita da / *Zuek zeuen* txakurra maite dozue

2.2.- Intensiboak

- *Ni* beti joaten naz / *Neu* joango naz
- *Zu* beti joaten zara / *Zeu* joango zara
- *Gu* beti joaten gara / *Geu* joango gara
- *Zuek* beti joaten zarete / *Zeuek* joango zarete

Gipuzkoan eta beste eskualdeetan badira honen antzeko intensiboak, *neroni, nihaur, hihaur*, etc. baina askoz bakanago erabiltzen dira.

2.3.- Erakusleak

Hurbiltasuna ala urruntasuna adierazteko erakusle ezberdinak erabiltzen ditu bizkaierak. Ez dira, halere, bizkaieraz mintzo den eskualde guzietan erabiltzen.

- Emen, or, orain, gaur, aurten bertan / an, orduan, atzo, biar, igaz, geurtz bertan
- Guk (zuek) gizonok egiten dugu (dozue) lana / gizonak jatorrak dira.
- Egun on, lagun maiteok! / Iparraldean dagoz gure lagun maiteak!

2.4.- Izenordeak. Giputzok egiten ez duguna, *nor* eta *zein* ongi berexten ditu.

— *Nor* etorri da? / *Zein* etorri da, Gorka ala Miren? (Batzuen artetik)

3.- ADITZA

3.1.- Beste euskalkiek galdu dituzten morfema bereizleak

3.1.1.—

— *na/-la*

— Etorri dala esan dau / badaki etorri dana

— Ezta egia etorri dana.

— Jakina etorri dana

— Egia da Madrilen dagona

3.1.2.-

— *la/- (n)ik*

Etorri dala usten dot / Ez dot usten etorri danik (Hemen hauxe da egitura: Ez dut *ogirik*)

3.2.-

Galdegaia. Bizkaierak bereizi egiten ditu:

— Maite jausi da / Maite jausi egin da

3.3.- Beste euskalkietan jokutzen ez diren aditzak:

— Ihardun: diardut, ziarduen...

— Eritzi: deritzot, deritzo...

— Eragin: behar ebaten badaragoio

— Eutsi: etzeari dautsala garajea dago

3.4.- Sustantiboen itxura duten antzinateko moldeak

— Biajetan noa

— Pentzetan dot. Gutxi usetan zan. Ze pasetan jako. Arrapetan dabil

— Geldiketan da. Ezaguketan dot.

(Egiturok *urketan*, *egurketan* oroitazten digute)

— Erropa plantxetako. Denbora pasatako

— Illunkeran, jauskeran

— Bestiekin ondo geldiketarren

(Hemen lehenago esana berresango dugu: belarrietarako moldeok ez dira beharbada oso atsegin. Bai molde aberasgarri eta indartsu, ordea!)

3.5.- Erdaratik hastanduago diren moldeak:

— Erosten joan da. Egur ekarten doa

4.- KONJUNTZIOAK

Euskalki guzrien artetik bizkaierak du konjuntzioak azkenean ipintzeko senarik bizienera, euskarari dagokion bezala.

4.1.-

- Esan diot barren!
- Esan diot baña!
- Ez hori egin, gero!
- Etorri arren, ez dau bearrik egingo

(*Nahiz etorri...: Konjuntzioa aditzaren aurrean ipintzeak esaldiari erdal kutsu handiago ematen dio*)

5.- ERREPIKATZEA

Errepikatzearen bidez, erramolde politak sortzen ditu bizkaierak:

— Ark emontzezan emotekoak. Zu zaoz egotekoa. Bearra akabauta deuko euki. Egon badago. Arena da izan. Polita da izan Irune. Jakin badakigu. Badoa joan. Etorri badator.

HUTSAK

Bizkaierak ez ote du hutsik, beraz?

Bizkaierak aspaldidanik sinkretismora jo zuen eta ez ditu s eta z, ts eta tz soinuak bereizten.

Bizkaiko zenbait eskualdetan, Arratian, adibidez, gazteen artean bi huts sumatu ditut, larrri izan daitezkeenak.

1.- *Nork nor* batzutan gaizki erabiltzea

— Amak eraman daust Bilbora (eraman nau)

2.- Zenbait aditz trinkoen *indikatibozko lehenaldia* ez erabiltzea:

Esan beharrea: *Atzo alaba pozik zegoen* maiz entzuten da: *Atzo alaba pozik egon zen*

Hutsok, ordea, ez dira bizkaieraren berarenak. Berriak dira eta zenbait eskualdetara bakarrik mugatuak.

Behin eta berriz esan dut. Bizkaiera neskatilla bat bezalakoa da. Neskatilla hori itxuraz ez da gipuzkera bezain polita. Baina bai osasuntsua bizkaiera! Bizkaieraren bihotz sendoa, birika zabalak, zango lasterrak, buru lerdena! Bizkaiera kementsua eta guztirakoa da. Zinez bikaina.

Bukatzeko. Bizkaiera, beste euskalkiak bezala, geure hizkuntzaren odola da. Euskalkirik hedatuena eta mintzatuena, gainera.